

E. SCHILLEBEECKX.

* Estatutua bai, Estatutua ez, erdi-bitu egin zen Euskal Herria. Besteak beste, euskararen aldetik behintzat Estatutuak zenbait posibilitate berri irekiko zuela itxaro zitekeen.

Gainera, euskararen alde, instituzioetatik kanpora eta boluntarismoz, egin ahal zitekeenaren topea jo genuela, uste genuen. Eta urgentea zela aldi berri bat abiatzea, instituzioen laguntzaz eta ofizialki, euskara indartzeko.

Bestela Estatutuaren aurka egonik ere, pertsonalki, euskaltzalea nekez jartzan zen itxi-itxi haren kontra: euskararen premiek eta larriek "posibilismo" batetara behartzen zuten.

* Egun haietan optimismo handia predikatu zen Estatutuaren alde. Hitz bakar bat eta bere oin propioen gainean altxatuko genuen Euskadi. Propagandaren optimismoa konpartitzen ez genuenok ere, euskararentzat bederen zerbait positiborik izango zuela, uste genuen. Etapa berri bat abia genezakeela, espazio berri batzuetan, medio berriekin. Soro handi bat ageri zen gure aurrean zabal-zabalik, landu gabe, denok elkar hartuz gero euskarari irabazi beharko geniona.

* Hasiera berri bat izan behar zuen. Orain, egunak eta gauak isil isilik pasa dira, euskararen egoerak ez du erakusten, bultzada haundirik inon hartu duenik. Inoiz baino tristeagoa dirudi gure egoerak: prentsan, literatura, irakaskuntzan bertan agian, administrazioan, bizitza publikoan, "irlanderaren paraderoa" daramagu.

Hasiera berririk ez da ikusten. Edonon ibilera zaharra.

* Bitartean tonoa bera, politikoen eta politikan maisu gisan agertu ohi zaizkigunen ahotan, biziki aldatu da. Sekulako bultzadan eta zalapartan zetozeela, ematen zuen orduan, zeruak eta lurra iraultzeko moduan: urgentziak, ikaragarriko gauzak egin beharra, haizea behar dela, ez dela konfliktorik sortu behar, gauzak inolako presagabe eta ondo egin behar direla... Orduko balentrien lekuan oraingo uz-

kurtasunak etorri dira. Zuhurtasun eta patxada bihurtu dira orduko larri guztiak.

Euskara eta euskal kultura oso inportanteak omen dira aberrigintzan. Esan, oraindik ere politiko denek hori esaten dute; baina gero ez dute jakiten egin zer egin. Puntu honetan berdintsuak dira PNV eta HB, EE eta ETA. Euskaltzaleak agian pertsonalki gehiago eta suharrago ibiliko dira horietakoren batetan besteetan baino; erakundeek berek, halere, erakunde gisa, ez diote batak besteari alde haundirik ateratzen. Proklamatu egiten dizute euskara, oso gutxi bultzatu, gutxiago erakunde barruan beraiek erabili.


Praxiraz gero, badirudi benetan jakin ere ez dakitela zer egin, nolako neurri konkretuak hartu (konfliktorik ez da sortu behar!), nondik hasi, euskara nola indartu eta zabaldu. Praktikarakoan irudimena itzali egiten da nonbait, borondate zorrotza kamustu.

* Kapitulu honetan luzatzeko asmorik batere gabe, gogoratu beharrezkoa dirudi nonbait denok oso erraz ahaztutako JAURLARITZAREN EGI-TAMUA. Han, eta besteak beste, kalendariotxo hau agintzen zen:

- 4 trimestre 1980: "Ley de protección a las publicaciones en euskera de carácter periódico"
- 1 trimestre 1981: "Ley de protección del Euskera"
- 4 trimestre 1981: "Estatuto de ikastolas"

Eta abar, ez bait da horretara mugatzen. Bitartean 1982 aurrera doa, euskararen aldeko legeek asko kargatu gabe joan ere, airoso eta bixkor. Bada zerbait programazio batetan. Oinatin jarri behar omen zen Administrazio Eskolaren fantasmada hura, etabar, alde bat utzita ere. Eta haizeak eraman dituen beste promesa guztiak.

Hau dena, azkenean, ez da kritika bat. Euskaltzalearen etsipen tristea besterik ez da eta desesperantza. Jakin, bestelakoxe inportantzia dauka, euskal nazioaren etorkizunerako, Le-moizko zentralak.



euskara eta euskal-politika

Joxe AZURMENDI